

**HISTORIAKO GRADUA**

**20. hamarkadako  
Garçonne emakumearen  
emantzipazio sexuala eta  
bere mugak**

**Saila: Historia Garaikidea**

**Egilea: Enara Arruti**

**Tutorea: Miren Llona**



**2016ko ekaina**

## **Laburpena**

XX. mende hasieran, Europatik feminismoaren ideiak zabaltzen hasi ziren. Aspaldiko urteetatik emakumea gizonaren azpitik ezartzea ez zen eztabaidan jartzen, baina zenbait gertakizunek eta hainbat faktorek bat egin zutenean, ideia horiek aldatzen hasi ziren gutxika. 1914. urtean, Lehen Mundu Gerra zela eta, gizonezkoek gerrara joan behar izan zuten, eta emakumezkoek hauek betetzen zituzten zenbait lanpostu hartu behar izan zituzten. Honek, denborarekin, emakumeen gutxieste hori eta aurreiritzi tradizionalak baztertuko ditu, emakumeek talde moduan boterea hartzearekin batera. Baina gerra amaitu ondoren, eta gizonezkoak berriz ere itzuliko direnean, gizarteak eta batez ere gizonezko hauek, ez dute egoera berri hori onartuko, eta beraz, estatuak mekanismo ezberdinak eramango ditu aurrea emakumezkoa berriz ere aurreko egoeran ezartzeko.

## **Abstract**

In the beginning of the XX century, the feminist movement began to expand in Europe. The idea of a woman being reduced below man was undeniable, but when some events and factors joined together, the mentality of the society started to change. Since the First World War started in 1914, the men were forced to leave their day a day life in order to go to the war and the women held the posts that remained empty. Little by little, the underestimation and the traditional prejudice around women dispelled. Thanks to it women got more power. However, with the returning of men once the war finished the society and mostly men who had been at war, refused to accept the new situation. As a result, the state will suggest new approaches for the women to go back the earlier situation.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	3
2. Emakume modernoaren sorrera.....	5
2.1. Ideia berriak .....	6
2.2 <i>Garçonne</i> : emakume eredu berria.....	7
2.3 Emakume modernoaren sorrera: sexu berdintasunerantz.....	11
3. Gizartearen erantzuna egoera berriaren aurrean.....	15
3.1 Amatasuna .....	18
3.2 Amatasunari lotutako lanbideak .....	21
4. Ondorioak .....	25
5. Bibliografia.....	27

## 1. Sarrera

Aurrean daukagun lan honen helburua XX. mendean, eta zehazki hogeigarren hamarkadan Europan ematen hasiko diren aldaketak aztertzea izango da, feminismoaren mugimenduak eta honen bide berriak behatuz. Hamarkada hau oso ezberdina izango da aurreko garaiarekin alderatuz, aurretik eman ez diren mugimenduek indarra hartuko dutelako eta ideia berriak agertzen hasiko direlako, aurreko mendea atzean utziz.

Lan hau burutzeko alde batetik bigarren mailako bibliografia erabilgarria izan da, eta horrekin batera ateratako gogoetak lanean zehar agertuko dira, eta bestetik lan hau erabat burutzeko beharrezkoak izan dira lehenengo mailako iturriak ere. Beraz bai bigarren mailako bibliografia zabal horrekin eta bestetik lehenengo mailako iturriak erabiliz, garairen inguruko prozesu eta ondorioak ateratzea izan da lan honen helburua. Zehazki idatzi hau bi bloke nagusietan egongo da banatuta: lehenengoan aipatutako hogeigarren hamarkada horretara iristeko emandako prozesuak azaltzen dira, atal guztiak azalduz eta emango diren aldaketa nagusiak deskribatuz. Bigarren blokean ordea emandako aldaketa horien aurkako erantzunak azalduko dira, ondoren horrek ekarriko dituen ondorioak ere aztertuz.

Lanarekin hasteko lehenik eta behin beharrezkoa da aipatzea feminismoak mugimendu bezala zein urteetan hartuko duen bereziki indarra. Talde kolektibo moduan ulertutako feminismo horren kontzeptua batez ere Frantziako Iraultzaren testuinguruan ulertu behar dugu bertan erakunde errepublikar feministak eta lehenengo emakumeen eskubideen aldarrikapenak agertuko baitira. Aski ezaguna dugu gaur egun Frantziako Iraultzan aldarrikatu ziren *liberté, égalité, fraternité* kontzeptuak (askatasuna, berdintasuna eta anaitasuna). Beraz emakume frantsesek paper garrantzitsua izan zuten aldarrikapen guzti hauetan, zeinetan aldi berean emakumearen berdintasuna eta eskubide politikoak aldarrikatzen ziren (Nash, 2004: 74). Testuinguru honetan kokatua, emakumeek *cahiers de doléances* delakoetan, zeinak kexatzeko koaderno modukoak izango ziren, emagalduen erbesteratzea, eskoletarako sarrera, eta lan postu egokiak lortzeko aukera ezartzen zituzten. Horretaz gain, tratu txarrak, genero biolentziak eta ezkontza barruko emakumearen gehiegikeriak ere kexa horien barnean sartzen ziren (Nash, 2004: 75). Beraz ikusiko

dugunez feminismoa talde kolektibo moduan jada XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasierarik etorriko zaigu.

Emakumeen mugimendu honek bultzada garrantzitsu bat izan zuen XIX. mendearen erdialdean. Bereziki emakumeek egindako borroka bi arlo berezietan (esklabutzaren abolizioaren borroka eta erlijioaren erreformismoa) protagonismoa eman zien modu kontsideragarri batean. Ekintza hauek oso garrantzitsuak izan ziren Ipar Amerikako feminismoa mugiarazteko orduan (Nash, 2004: 79). Testuinguru honetan garrantzitsua izango da Seneca Falls-eko aldarrikapena aipatzea, zeina mugimendu feministaren aitzindari kontsideratua izan den 1848.urtean idatzitako *Declaración de Sentimientos* lana manifestu paradigmatico moduan hartuz.



### 1. irudia<sup>1</sup>

Momentu honetan aldarrikapen honek ez zuen garrantzi edo eragin handirik izan, baina hurrengo urteetan berriz ere berreskuratu egingo da. (Nash, Alvarez, 2002: 11).

<sup>1</sup> **1.Irudia.** (Friends of Women’s Rights national historical park, 2016: <http://www.womensrightsfriends.org/1848.php>). Seneca Falls-en idatzitako sentimenduen aldarrikapena dugu honako dokumentu hau, feminismoaren mugimenduan, eta beraz emakumeen eskubideen aldarrikapen formalen aitzindaria izango dena.

Gutxika beraz emakumearen berdintasunak aldarrikatzen joan ziren, gizonezko eta emakumezko sexuak berdintasun maila batean aldarrikatuz (Nash, 2004: 83). Urteak igaro ahala bai mugimendu hauek eta baita hauek eginiko aldarrikapenak ere indar handiagoa hartzen joango dira, baina oraindik ere urte batzuk itxaron beharko dira mugimendu hauen nolabaiteko emaitzak gizartean islatzeko.

## **2. Emakume modernoaren sorrera**

XIX. mendearen amaieran, eta XX. mendearen hasieran emakumearen egoera oraindik oso atzean zegoen berdintasunari dagokion arloan. Garai hartan, emakume domestikatu baten irudia onartzen zen eta emakumeak ez zuen aukera egoera horri ezetz esateko (Nash, 2004: 39), beraz pentsaezina zen urte batzuk beranduago emakumea bide horretatik ateratzea. Etxean zuen papera ezinbestekoa zen, familiaren oreka eta heziketa zituelako bere gain, eta pisu handia suposatzen zuen gizartean. Beraz, emakumea argi eta garbi lotzen zen paper horretan eta gizarte guztiak onartzen zuen arketipo bat zen, inork ere ez zuena zalantzan jartzen. Egoera guzti horrek noski, suposatzen zuen emakumeak bizitza publikoan bere leku propioa ez izatea eta horrekin batera bi sexuen arteko rol horiek guztiz ezberdinak izatea.

Egoera hau oreka batean mantendu ahal izateko, emakumearen paperaren inguruan teoria asko zeuden zabaldua. Teoria horien helburua emakumea gizonarekiko behe maila batean zegoela onartzea zen, eta teoria horiek urte askoetako tradizioa izan dute (Starr, 1993: 24). Tama Starrek beraz bere lanean zehar emakumea gutxietako erabili izan diren ideia guztiak azaltzen dizkigu, eta horrekin argi ikusten dugu nola emakumea gizonaren oso azpitik kontsideratua zegoen. Beraz, ideia hauek hausnartuz, ohikoa egiten da pentsatzea emakumeak gizonezkoen bizitza berdina egitea ezinezkoa izatea. Gainera, emakumea eta etxea edo familia lotzearen ideia oso zabaldua zegoen bai literaturan eta baita artean ere “angel del hogar” moduko kontzeptua oso barneratuta eramango dutenak (Sohn, 1993: 130).

Horren aurrean ordea, aurretik aipatutako geroz eta gehiago garatzen joango diren mugimendu feministek zeresan handiagoa izango dute XX. mendearen hasieratik, Lehen Mundu Gerrara arte. Eskubide politiko eta botoaren inguruko aldarrikapenak mugimendu

horien oinarria bihurtu ziren (Nash, 2004: 111). Azkenean hogeigarren mende honetan emakumeek lortutako lorpenez beranduago hitz egingo dugu.

## **2.1. Ideia berriak**

1914. urtean, Lehen Mundu Gerraren hasiera emango da. Hasiera batean, gerra honen ikuspegia ez zen ondoren izango zena, denbora gutxiko kontua izatea espero baitzen, zeinetan irabazle eta galtzaile batzuk egongo ziren. Baina denbora pasa ahala, konturatu ziren bidea askoz konplexuagoa izango zela. Gerra beraz, Lehenengo Gerra Modernoa kontsideratuko da, aurreko mendeetako dinamikarekin apurtzen duelako, gerra mota berri bati sarrera emanez. Gudu horrek, geroz eta urte gehiago behar zituela konturatzen ziren heinean, geroz eta gizon gehiago mobilizatzen hasi ziren, gerran parte hartzen zuten estatuetan. Beraz, gizon horiek gerrarako behar zirenez, milaka lan postu hutsik gelditu ziren. Horrela izanik estatuko ekonomia ez gelditzeko eta aurrera atera ahal izateko, emakumeek rol berria hartu zuten gizonezkoek utzitako lan horiek betetz. Emakumezkoen leku hau ezinbestekoa bihurtu zen estatuentzako, ekonomia zutik mantentzeak gerrarako indar handiagoa ekartzen zuelako aldi berean (Thébaud, 1993: 49). Planteamendu luze eta sakona egiten du Thébaudek bere analisisian, gerrak ekarri zituen ondorioengan beraz.



**2. irudia<sup>2</sup>**

---

<sup>2</sup> **2.Irudia.** (Devis, B., 2014: <http://expansion.mx/mundo/2014/07/25/las-mujeres-poderosas-que-dejo-la-primera-guerra-mundial>) Lehen Mundu Gerran emakumezkoak gizonezkoek postuak betetzen fabrika batean.

Egoera berri honek, nolabaiteko inflexio puntua suposatuko du emakumeengan, zeinak eredu berri bat ekarriko duen Europara. Esan daiteke hein batean Lehen Mundu Gerrak, liberalizazio moduko bat suposatu zuela emakumeentzako, lan munduan sakonago sartu ahal izan zelako bere gaitasunak erakutsiz, eta ekonomia bultzatuz (Nash, 2004: 54). Beraz, gerra honek emakume eta gizonezkoen aurreko rol horien apurketa bat sortuko du, arlo honetan berdintasun handiago bat sortuz, eta aurretik aipatu ditugun ezberdintasun horien arteko mugak hautsiz. Aurretik aipatu ditugun emakumea gutxiesten zuten teoriak jada ez zuten balio berdina (Aresti, 2001: 178). Aldaketa berri hauek beraz, teoria horiek deuseztatuko dituzte, baina horrek aldi berean sexuen arteko ezberdintasunak handiagotzeko beharra ekarriko du Nerea Arestiren ustetan.

Aurrerakuntza horrek emakumeei nolabaiteko boterea eman zien. Alde batetik emakumeek ikusi zutelako aurretik zuten papera edo rola gainditzeko gai zirela, eta botere hori esperientzia propioak eman zien gerran zehar. Bestalde, gizonezkoak ere, euren pentsamenduaren aurka, ikusten joango dira nola emakumeak aurrerapauso handiak emango dituzten (Nash, 2004, 54). Beraz emakume horrek lortutako botere berri hori, eredu ezberdin batean ikusiko dugu irudikatuta. Eredu berri hau feminismoaren bultzadak sortutako modeloa edo irudia izango da, zeina aurreko emakume tradizionalaren guztiz aurkakoa izango den (Aresti, 2007: 175).

## **2.2 Garçonne: emakume eredu berria.**

Emakumearen eredu berri honek, pentsamendu era berri bat ekarri zuen, eta honekin gaur egun ezaguna den *Garçonne* eredu aipatzekoa ezinbestekoa da. Hitza frantsesa da, eta horrela izendatu zen Frantziar zabaltzen hasi zen eredu izango delako hasiera batean, orokorra bihurtu zen arte, eredu zehatz bat deskribatu nahian (Cruz-Camara, 2015: 14). Eredu berri honek, aurretik aipatu dugun moduan, aurreko guztiarekin hausten zuen, eta eredu honek emakume guztiz berri bat sortzen zuen aspektu guztietan. Kanon tradizional guztiak uzten zituen atzean eta tradizio hori aipatzen dugunean, amaren papera, emazte perfektuaren eredu, emakume otzana, atzean uzteaz hitz egiten dugu. Beraz guzti honi erronka moduan, emakumeek beste bizitza bat hasiko dute zeinetan libreago izango diren aurreko egoerarekin konparatuta. Sexualki esploratzen hasiko dira eta euren bizitzaren jabe



izaten saiatuko dira (Thébaud, 1993: 102). Itxura fisikoari dagokionez, irudi berria ere garrantzitsua izan zen. Emakume eredu berri honek ilea motza zeraman, eta bere gorputza estilizatua zen, itxura androgino batekin. Aurreko urteetako soineko luzeak, kapela deserosoak, kortseak, eta ile luzeak alde batera utzi nahi izan ziren protesta moduan (Thébaud, 1993: 102).

Horretaz gain, beste aspektu bat ematen zion, informalagoa izango zena, eta hain zuzen ere izaera berri horrekin bat etorriko zena. Oso esanguratsua izango da bestalde emakume hau irudikatzeke orduan ahoan eramaten zuen zigarroa edo auto bat gidatzen irudikatzea, nolabaiteko errebeldia puntu bat adierazten zuena, ordura arte gizonezkoenak izango ziren ohiturak hartzen hasi zirelako (Cruz-Cámara, 2015: 16). Garrantzitsua da aipatzea, batez ere sexualki libre a edo emantzipatua izango den emakume eredu berri baten aurrean egongo garela, zeinak ezkontza eredu hori atzean uzten duen, eta aspektu horretan libre jokatu duen.



### 3. irudia eta 4. irudiak<sup>3</sup>

<sup>3</sup> **3. Eta 4. irudia.** GARCIA, L., 2013, *El pais*: <http://smoda.elpais.com/moda/las-flappers-esas-mujeres-a-las-que-la-moda-actual-les-debe-todo/>. *Garçonne* emakume ereduak. Ile motza eta garaian ohikoa zena baino itxura maskulinoago batekin. Lehenengo irudian erdian eserita dagoen emakumeak zigarro bat izango du eskuetan, aipatutako “errebeldia” horren erakusle, gizonezkoen irudira hurbiltzeko saiakera batean. Bigarrenean ikusiko dugu nahiko estilo ezberdina dela, baina funtsean emakume eredu hori irudikatuko duena.

Eredu honek gizonezkoen artean nolabaiteko beldurra edo ezinegona ekartzen zuen, ordura arteko rolen aldaketa ekarriko zuela zirudielako, gizonezkoen nagusitasuna zalantzan jarriz. Horretaz gain, ez zen soilik gizonezkoen subiranotasun horren zalantza, baizik eta aurreko emakumearen eredu hori galtzea. Horrek etxeko oreka apurtzea suposatzen zuen. Emakume eredu honek gizonezkoen mailara iritsi nahi zuen, euren pribilegioak hartuz eta bizitza publikoan zuten lekua partekatuz (Llona, 2002: 262). Testuinguru honetan, 1922. urtean Victor Marguerittek idatzi zuen nobela aipatzekoa ezinbestekoa da, hain zuzen ere *La Garçonne* izenburuarekin (Cott, 1993: 129). Liburu honek gizartean kezka hori areagotu zuen, eta aurkakotasun sentimendu bat sorrarazi zuen eredu honen aurka zegoen jendearengan. Nobela hau ez zen emakume horren aurkako salaketa bat izan. Honen helburua zen gizarteari erakustea zein izango den emakumeen bizitza egokia, edo nolabaiteko euren lekua (Llona, 2002: 263).

Emakume eredu horretatik batez ere ile motza izan zen aldaketa nabariena, eta gaur egun, aspektu normalizat hartzen badugu ere, garai horretan oso faktore garrantzitsua izan zen, sinbolikoki, gizonen pareko jartzea bezala zelako. Momentu hartara arte emakumearen ezaugarri nabarietako bat ile luzea zen. *Garçonne* ereduaren itxura maskulinoak feminitate tradizionala jartzen zuen zalantzan azken finean. Kontuan izan behar dugu garai horretara arte emakumearen oinarrizko aspektu moduan hartzen zela ama izatearen paper hori, eta oso paper baliotsua zen gizartean. Eredu honek berriz, ideia hori baztertzen zuen hein batean. Beraz tentsioa areagotzen joan zen beldur hori zela eta (Fernández de Rota, 2010: 65).

Esan dezakegu hitz egiten ari garen emakume eredu honekin emakumearen nolabaiteko emantzipazio sexuala etorri zela, zeinetan emakume libreago bat aldarrikatzen zen, eredu femenino horretatik urruntzen zena, eta jokaera berri bat zuena (Nash, 2004: 55). Atzean gelditzen zen etxean zintzo mantentzeko beharra zuen emakume eredu hura, zeinetan etxe bateko orekaren oinarri nagusia zen. Esan beharra dago, emakume eredu berri horiek, tradizioarekin apurtzeaz gain bi sexuen arteko berdintasunak aldarrikatzen zituztela eta beraz gizonezkoek egiten zituzten ekintzak egiten saiatzen zirela, bien arteko muga horiek apurtuz. Era berean emakume horiek intelektualak ziren, unibertsitateetan

ikasten zutenak, eta bizitza maila hobea bilatzen zutenak (Llona, 2002, 147). Emakume hauek bizitza estilo berri bat hasi zuten, eta horrekin batera Estatu Batuetatik etorritako musika estilo ezberdinak zabaltzen hasi ziren European zehar, hala nola, *jazz*-a (Thébaud, 1993: 102). Horrekin batera, lan munduan ere irekiera bat aldarrikatzen zuten, ordura arteko emakumeek ez baitzituzten aukera berdinak. Argi eta garbi ikusten dugu Llonaren liburuan, Paz Eguía-ri eginiko elkarrizketa batean, nola garaiko emakumeek ez dituzten gizonezkoen aukera berdinak izango:

Hoy una joven piensa... voy a estudiar una carrera,... voy a ocupar un puesto... Yo no pensaba en el porvenir mas que lo corriente en las chicas... Mis hermanas ¡jolin! que se tenían que casar o se tenían que quedar solteras, no pensaban en otros planes. No había ese porvenir que ahora teneis. Hay muchas cosas que hacer en la juventud. Todas las chicas teneis muchos planes. Entonces no teníamos planes. O nos casabamos o nos quedabamos solteras o nos íbamos a un convento (Llona, 2002: 67).

Emantzipazio sexual horrek beraz aurreko tradizioarekin hausten zuen modu erradikal batean eta beraz hainbat ideia, ordura arte ezkutukoak zirenak ere aldarrikatu nahi izan ziren, hala nola, homosexualitatea. Azken finean, lanean zehar aipatu dugun moduan, ama eta emakume perfektua irudikatzen zuen irudi horrekin hautsi nahi zen, eta irudi horrekin hausteak familia eredua ere aldatzea suposatzen zuen. Hamarkada honetan zehar jada ikusiko ditugu emakumeek ideia honekiko hartuko duten jarrera, eta hori argi eta garbi ikusiko dugu Dora Russell-ek idatzitako *Hipatia: mujer y conocimiento* liburuan. Russell Londresen jaio zen 1984.urtean, eta berdintasunean sinesten zuen familia baten barruan jaio eta hezi zen. Emakume honek bere esku zituen aukerak aprobetxatzen jakin zuen eta Hizkuntza Modernoak ikasi zituen Cambridg-eko unibertsitatean, 1915.urtean lizentziatu zelarik. Unibertsitateko mundu horretatik feminismoaren munduan murgiltzen hasi zen gutxika. Urte horietan zehar ezkondu ere egin zen, eta hain zuzen ere ezkontza horretan bizitako esperientziak balio izango dio bere pentsamendua garatzeko eta aldarrikapen berriak egiteko ezkontza eta amatasunaren inguruan. Bere pentsamenduetan argi izango du aurretik emakumeari atxikitzen zitzaion amatasun paper hori atzean uztea legezkoa dela, eta emakumeen eskubideen artean dagoela, esanez emakumea ez dela gutxiago ama ez bada (Russell, 2005: 11). Ideia hori honako hitzetan ikusiko dugu irudikatuta: “La experiencia de la mujer moderna nos dice que el sexo es una necesidad instintiva, tanto para ellas como para los hombres, y que la prevención del embarazo no les provoca una pérdida de elegancia, salud o felicidad” (Russell, 2005: 76).

Idea honetan, bestalde, ideia oso moderno bat aurkituko dugu. Hitz hauetan Russell antisorgailuen erabilpenaz hitz egiten ari da, eta oso aspektu garrantzitsua izango da, hain zuzen ere amatasun ideia horren aurka doalako. Horretaz gain, honekin lotuta bere ideietan ere askatasun sexuala planteatzen du, zeinak aurreko ezkontza-ereduarekin hausten duen erabat. Bestalde garaiko beste zenbait emakumeek ere askatasun sexuala eta amatasunaren inguruan hitz egiteaz gain askatasun ekonomikoaz ere hitz egiten dute, eta horren adibide garbia izango dugu Virginia Woolf-en *Una habitación propia* liburua. Bigarren emakume hau ere Londresen jaioa izan zen, 1882.urtean. Woolf aitzinadaria izango da emakumeen kondizioen inguruan gogoetak egiten eta baita emakumeak artea eta literaturarekin izango duen erlazioan ere. Aurretik aipatu dugun liburu horretan emakumeen askatasun osoa posible ahal izateko, askatasun ekonomikoa ematea beharrezkoa dela aldarrikatuko du. Horretarako metafora moduko bat erabiltzen du “habitación propia” terminoa erabiliz. Termino hau erabiltzen duen aldiro, askatasun horretaz hitz egiten du: “que una mujer debe tener dinero y una habitación propia para poder escribir novelas” (Woolf, 2008: 9).

### **2.3 Emakume modernoaren sorrera: sexu berdintasunerantz.**

Zalantza ezina da beraz *Garçonne* eredu honek kontzeptu berriak sortu zituela emakumearen inguruan, eta gizartearen ordena ere zalantzan jartzen hasi zela. Mende luzeetan nagusitasuna izan zuten ideiak erortzen ari ziren jada eta beraz horrek aldakuntza bat eskatzen zuen, hots, nolabaiteko erantzun bat. Erreakzio horren behararen atzean beldurra zegoen noski. Emakumea bat batean inoiz aurretik egon zen maila gorenean kokatu zen, eta bazirudien bere eskubideak inoiz baino indartsuago aldarrikatzen zituela. Beldurra beraz emakume berri horrek egin zezakeenaren inguruan zebilen. Gizartearen aldetik beraz beharrezkoa zen sexuen rolak behar bezala definitzea, eta bien artean zeuden mugak inoiz baino gehiago sendotzea (Aresti, 2012: 55). Garrantzitsua bihurtu zen emakumearen papera zein zen adieraztea, eta aldi berean gizona zein zuten rol hori ere argi uztea. Gizartearen zati handi bat izango da erreakzio honen parte. Aspektu honetan berebiziko interesa izango dute profil antzekodun gizon talde zehatz batek. Orokorrean gizon hauek klase ertainekoak izango dira, progresistak, mediku, biologo, jurista edo kazetari moduko ogibideak izango dituztenak (Aresti, 2012: 58). Eredu honek eta ezberdintasun berri honek emakume mota hori hirugarren sexua bezala definitu zuten

(Aresti, 2007: 178). Euren ustetan eta erabilitako diskurtsoetan defendatzen zuten naturak bi sexu sortu zituela (gizonezkoa eta emakumezkoa) eta ondoren gizarteak hirugarren sexu hau osatu zuela (Aresti, 2007: 178). Ikusten dugun moduan beraz, emakume modernoaren aurka sortutako erreakzioa sexu ezberdintasuna areagotzea izan zen bakoitzaren lekua zein zen argi utziz. Aspektu hau ordea sakonkiago aurrerago ikusi ahal izango dugu, eta orain aurpegiaren beste aldea aztertuko dugu, hots, emakumeak lortu zituen bide berriak.

Urte hauetan zehar bazirudien emakumea geldiezina bihurtu zela, eta mugimenduek izugarritzko indarra hartu zuten. Emakume honen lorpenak ugariak izan ziren, eta gerrak suposatu zuen inflexio puntu horretatik aurrera aurrerapauso oso handiak ikusiko ditugu. Puntu horren gailurretako bat emakumezkoen sufragioa izango da. Gerra aurreko garaietan emakumezkoen sufragioa, berdintasunaren elementu moduan aldarrikatuko da, baina gerran zehar beste kutsu bat hartuko du, eta oraingoan gerran gizonezkoek utzitako leku horiek hartu dituzten emakumeek aldarrikatuko dute boto eskubidea, urte horietan lortu duten gutxikako botereak ematen dien indarraren bidez (Thébaud, 1993: 92).

Argi dago botoaren eskubidea aurreko garaietako ekintzen eta aldarrikapenen emaitza izan zela, baina beti ere kontuan hartuta gerrak lorpen horietan izan zuen eragin handia. Esaterako Ameriketako Estatu Batuetan gerran beranduago sartuta, emakumeen boto eskubidea ez zen hain lotuta egon urte horietan lotutako boterearekin Europan gertatu zen moduan (Thébaud, 1993: 93). Aldarrikapenak eta borroka gogorak izan ziren, baina badirudi Thébaud moduko autoreek esaten dutenez Europan bereziki botoaren eskubidea gerraren ondorio izateak, emakumeari eskertzeko modu bat izan zirela. Hala aldarrikatzen du Dora Russellek ere, esaten duenean “En 1918 nos concedieron el voto, del mismo modo que repartieron pocas Damas y MBE como premio por nuestros servicios” (Russell, 2005: 39). Hitz hauetan Dora Russellek argi eta garbi adierazten du botoa esker moduan eman zitzaiela, aurreko borroka guztiari garrantzia kendu nahian. Horrekin batera ere ondorengoa adierazten du: “Dieron el voto a las mujeres mayores, consideradas menos rebeldes” (Russell, 2005: 39). Kontuan izan behar dugu momentu hauetan oraindik ere ez zela sufragio unibertsala izan, 1918.urtean botoa 30 urtetik gorako emakume dirudunei eman zitzaielako. Beraz ez da izango 1928. urtera arte non emakumeak sufragio unibertsala lortuko duen (Nash, 2004: 125). Beraz aspektu honetan Russelek kritikatzeko duena da alde

batetik emakumeen botoa, nolabaiteko konformismo batera iristeko tresna izango dela, sufragisten mugimendua lasaitu eta orekatzeko, eta bestetik adinaren kontuari ere garrantzia ematen dio, azpimarratuz generazio berri horiei beldurra nabaria dela.

Beraz guzti honekin esan dezakegu estatuek gerraren aitzakia erabili zutela emakumeei botoa emateko, eta honekin batera, sufragistek aurretik eginiko borroka gutxiesten zutela. Hau da, gerran egindako lanagatik ematen bazieten botoa, horrek suposatzen zuen aurreko guztiak ez zuela ezer ere eragin. Autore batzuk ordea, ez dute ideia hau jarraituko eta sufragisten aurreko borroka goraipatzen dute (Lloyd, 1970: 99). Feminismoak sufragioaren borrokan ez zuen lan erraza izan, oposizioa gogorra zelako. Aurreko diskurtsoarekin erabat hausten zuen botoaren ideia horrek, eta bizitza publikoan emakumeen presentzia pentsaezina egiten zen (Nash, 2004: 114). Sufragista hauen aurka oso erabilia izan zen propaganda, zeinetan emakume hauek gutxiesten ziren euren irudia makurraraziz eta iseka eginez. Sufragista berri horiek, zeinak emakume eredu berri hori osatuko lukeen, euren itxura maskulinoagatik oso kritikatuak izan ziren, eta elementu hori erabili zen hauen aurka egiteko (Nash, 2004: 116). Emakume horien aurkako kritikak gogorrak ziren, eta horren adibide izango dugu Virginia Martinez del Castillo, bilbotarraren hitzak:

Las damas elegantes que había en Plencia se juntaban allí en grupo, y yo estaba paseando tranquilamente y me insultaron, me silbaron, y me tiraban piedras y se quejaron... que me tenían que echar de la playa por indecente. Yo era sola contra el mundo, peor contra las mujeres que contra los hombres (Llona, 2002: 275).

Argi ikusten dugu beraz aurretik sufragista horiek indarra izan zutela sorrarazten zuten aurkako iritziak aztertzen baditugu. Gerrak nahiz eta epe luzean inflexio puntua suposatu, momentu berean geldialdi bat suposatu zuen sufragista horien borroka horietan, botoaren aldeko ekintzak utzi behar izan zituztelako, gerran zentratzeko (Nash, 2004: 124). Hala ere ez da Lloyd-en helburua izango gerrak suposatu zuen aurrerapauso hori baztertzea. Bere iritzitan, aurreko mugimendu feministek suposatu zuten garrantzia ahaztu gabe, gerrak berak ere, lanean aipatu dugun moduan botere handia eman zien emakumeei aurrera jarraitu ahal izateko, eta urte batzuetan mugimendu horiek geldialdi bat izan bazuten ere, borroka konstantea izan zen. Emakumeen sufragioak beraz Ingalaterran bere momentu gorena bizi izan zuen 1918. urtean, eta lorpen honek aurreko gizarteko estruktura finko batzuk haustea

lortu zuen (Nash, 2004, 125). Garrantzitsua izango da bestalde feminismoan amatasunaren inguruko aldarrikapenek hartuko duten nagusitasuna. Hau da, emakume batzuk amatasunaren diskurtsoaz baliatuko dira gizartean daukaten funtzio garrantzitsua aldarrikatuz eta horregatik eskubide politikoak izatea beharrezkoa izango dela esanaz (Nash, 2004: 125). Horrela, Nashek bere liburuan Millicent Fawcett aipatzen du, bere “la casa y la política” diskurtsoa aipatuz: “Queremos que la casa y la perspectiva domestica cuenten más en la política y en la administración de los asuntos públicos de lo que lo hacen ahora”(Nash, 2004: 125).

Botoaren eskubidez gain urte hauek garrantzitsuak izan ziren beste arlo batzuetan ere suposatu zuen aurrerapenak direla eta. Esaterako hezkuntzan hamarkada honen bueltan aldaketak nabarian izan ziren. Kontuan izan behar dugu aurreko urteetan mugimendu feministak oraindik ez zirela izugarrizko mugimenduak, eta XX. mendearen hasieran hasiko dela benetako indarra izaten, aurretik aipatutako aurrerapen eta aldarrikapenekin. Honekin lotuta beraz, berebiziko garrantzia izan zuen hezkuntza berdintasunen inguruan eginiko aldarrikapenek, emakumeak kultura eta alfabetizazioa jasotzeko beharra sumatzen hasi zirelako geroz eta gehiago feministak, eta batez ere bai unibertsitate eta lan mundu altu batera iristeko aukera bakarra izango zelako. Modu honetan nabaria izango da eskola mistoen irekiera, institutu eta unibertsitateetan emakumeen presentzia nabaria...Honekin lotuta beraz emakumeei lan munduan ere bide berriak ireki zitzaizkien, ondoren sakonago aipatuko dugun moduan (De Burgos, 2007: 35).

Ez dago zalantzarik garai honetan lortutako lorpen handienetako bat boto eskubidea izan zela, urteetan zehar aurrera eramandako borrokaren azkeneko gailurra suposatu zuelako. Ezin dugu ahaztu gerrak guzti honetan izan zuen eragina oso nabaria izan zela. Aldi berean ordea, ikusita emakumeak lortzen zuen guztia geroz eta nabarmenagoa zela, guzti honek aurkako erreakzio bat ekarriko du. Atalaren hasieran aipatu dugun moduan, sexu ezberdintasuna izango da erreakzio erabiliena, zeinetan bi rolak berriro ere definitu nahi izango diren, emakumeek sexu berdintasunerantz borrokatuko duten bitartean.

### **3. Gizartearen erantzuna egoera berriaren aurrean**

Lanean zehar aipatu dugun moduan beraz *Garçonne* eredu berria deskribatu ondoren, sortutako aurkako aurpegi berria ere aztertzea da. Arestian aipatu moduan oreka honen apurketaren aldean sexu ezberdintasuna areagotu zen era nabari batean, bi sexuen artean ezberdintasunak ezarriz, hots, emakumeak urte hauetan egiten ari zirenaren aurkakoa eginez. Mekanismo hauek ordea ezin ziren besterik gabe ezarri, jada emakumeak bere ideiak eta boterea garatu zituelako, eta ez zen lan erraza izango lortutako nagusitasun hori kentzea (Aresti, 2001: 67). Azken finean gizarte batean barruan urte luzeetan zehar sendotzen diren ideiak arriskuan ikusteak beldurra eragiten du edozein gizarte eta edozein aspektu denean, eta feminitatearen eredu berri batean pentsatzeak ezinegonak ekarri zuen Europan.

Aipatu ditugun erreakzio horietan, emakumea aurreko egoerara itzultzeko nahia argia zen. Baina zenbaitetan aipatu dugun moduan jada ezinezkoa zen egoera horren aurrean besterik gabe emakumeek lortu zutena berriz ere eskuetatik kendu. Beraz gizarteak mekanismo horien artean aurrera eramandako elementu garrantzitsu bat maskulinitatearen aurreko ideia edo kontzeptua aldatzea izan zen (Aresti, 2007: 181). Modu zabal batean aipatu dugu emakumearen berezko zeregina zela umeak hezte eta etxea aurrera eramatea. Baina zein zen guzti horretan gizonezkoek betetzen zuten papera?

XX. mendearen hasieran bi sexuen arteko ezberdintasunak handiak ziren aspektu honetan. Hots, emakumeak hurrez arduratu behar bazuen, gizonezkoak aita arduragabearen irudia zuen momentu hartan (Aresti, 2001: 115). Ez zen aitaren ardura umeen zainketa ez eurengan ardura ezartzea, dena amaren gain ezartzen baitzen. Hain zuzen ere hori izango da emakumeen aldarrikapenetan ere nahiko presente egongo den kontzeptuetako bat. Azken finean ama izateak, umea erditzea baino zerbait gehiago adierazten zuen. Ume hori zaindu eta hezi behar zituen inolako laguntzarik gabe, eta Dora Russellek, aurretik aipatutako obran honen inguruan hainbat aldarrikapen egiten ditu: “La inmensa mayoría de los hombres ni siquiera son cariñosos o amables con sus mujeres cuando están embarazadas o criando, y tampoco brindarán su ayuda y su apoyo en el cuidado de sus hijos pequeños” (Russell, 2005: 77).



Aitaren inguruko ideia horretaz gain, gizonezkoen inguruan adulterioaren ideia ere nabarmena zen (Aresti, 2001: 115). Kontuan izan behar dugu, gaur egun gertatzen den moduan, gizarte patriarkal baten ereduaren barnean egongo garela. Gizonezkoek euren espazio propioak izango dituzte, emakumezkoen espazio bakarra etxera mugatuko den bitartean. Gizonezkoengan adulterioa ohikoa zen eta emakumezkoek aspektu horretan ez zuten zereginik. Orokorrean gizonezkoaren irudia familiarik kanpo gelditzen zen elementu batena izango zen, zeinak dirua ekartzen zuen etxera, eta etxean ez zuena beste betebeharririk. Dora Russelek honen inguruan ere bere analisia egiten du:

Deberían decirles que la mujer no es un objeto ni una sirvienta, ni siquiera un ser inferior, sino una compañera en la felicidad y en los asuntos de la vida, que no hay ninguna cuestión o dificultad, ya sea pública o privada, que no se pueda discutir y valorar con ella, y que tiene el derecho a participar en las decisiones que afectan a la vida juntos: los niños, el dinero y la gestión de las cuestiones de Estado (Russell, 2005: 79).

Ikusten dugun moduan beraz etxeko paper hauen banaketa ez zen justua, eta hein batean, nahiz eta ez arrazoi bakarra izan, borrokatu zuten emakume horiek gertakizun hauek salatzen zituzten (Aresti, 2001: 115). Gizonezko eredu horrek Espainian “donjuan” izena hartu zuen, eta beraz garaiko gizonezko eredu definitzen duten bibliografia ugarietan ohikoa izango da termino hau aurkitzea. Deuseztatu nahi zen irudia beraz donjuan eredu hori zen argi eta garbi (Aresti, 2001: 119). Sexuaren ikuspuntua garrantzitsua bihurtu zen, hain zuzen ere, aztertu dugun *Garçonne* eredu hori, sexualki libre aldarrikatzen zen emakume bat zelako. Bereziki aspektu horregatik oso kritikatu izan zen, baina gero ikusten dugunez gizonezkoek ezkondata egonda ere kontratu hori hautsi zezaketen, euren ohorea zikindu gabe (Aresti, 2001: 115).

Ikusi dugu emakume eredu aldatu nahi zela, baina denborarekin ikusi zen ezinezkoa izango zela gerraren aurreko egoerara itzultzea. Birritan aipatu dugun moduan, emakumea jada ez zegoen prest aurreko urteetan bezala isilik gelditzeko gizonaren menpean, beraz bide berri bat bilatu beharra zegoen nolabait egoera konpondu ahal izateko. Aurreko egoerara itzultzea ezinezkoa bazen ere, egoera aldatu zitekeen, eta hain zuzen ere hori izan zen mekanismo berri horiek zuten helburua.

Garai honetako erreformistek beraz ideia honi ekin zioten. Hauen helburua gizartean nolabaiteko oreka sortzea zen. Ezin daiteke esan egindako erreformak emakumea

konformatzeko egin zirela, izan ere euren helburua gizartearen lasaitasuna eta antolaketa bat ezartzea zen, gertatzen ari zen kaos guzti horren barnean. Erreformatzaile horien artean, Espainia mailan, Marañon aurkituko dugu. Bere helburua, aipatu dugun gizonezko horien eredua leuntzea izan zen (Aresti, 2001: 131). Espainia mailan Marañon aurkituko dugun moduan Europan, Lewis Terman moduko zientzialariek ere aspektu antzekoak proposatuko dituzte, egoera honen aurrean oreka bat bilatzen saiatuko diren heinean. Hala ere, Europa mailan garrantzia hartuko duena bereziki aspektu psikologikoa izango da, emakumeen jarrera eta euren biologia ulertzeko beste modu bat planteatuz. (Cott, 1993: 118).

Marañonek sortu nahi izango duen eredu hori orokorrean estatuak eta gizarte erreformatzaileak inposatu nahi zuena izan zen. Aurreko gizon arketipo horrekin hautsi nahi izan, nolabaiteko gizon lasaiago bat, arduratsuago bat eta maitagarriago bat sortuz. Lortu nahi zena zen etxeko intimitatean, gizonezko hori bere emakumezkoaren laguna izatea. Eredu hori behar bezala ulertzeko, ezinbestekoa zaigu berriro ere *La Garçonne* obra aipatzea, bertan argi eta garbi ikusten delako zein gizon mota sortu nahi den gizarte erreformatzaile berri honetan. Protagonistak bizitza libre eta sexualki emantzipatu bat bizitzea erabakitzen duen heinean, orduan eta depresiboago eta tristeago biziko da. Horrekin adierazi nahi izango dena da emantzipazio horrek ez diela emakumeei desiotako poztasun hori ekarriko, baizik eta guztiz kontrakoa sarraraziko duela. Emantzipazio sexual horretan sartzen den bitartean, gizonezko bat ezagutuko du eta maitemindu egingo da, baina hau autoritarioa izango da, eta ez ditu emakumearen espazioak errespetatuko. Protagonistak ezin izango du egoera hori jasan, eta erlazio horretatik alde egingo du, benetako maitasuna aurkitzen duen arte. Maitasun berri honetan gizonezkoa ulerkor eta adeitsua izango da, eta bi sexuen arteko berdintasuna bermatuko du.

Idea honekin protagonistak berriz ere etxera itzultzeko grina- hori biziko du, amatasun papera onartuz eta aurreko iragan emantzipatu hori nolabait ahaztuz (Llona, 2002: 264). Obra honetan beraz ikusiko duguna da, zurrumbilo horretatik ateratzeko bide argiena familia eta gizon arduratsua izango direla. Honekin, emakumea konforme egongo zen, ez zelako aurreko urteetako egoera berdinerara itzultzen, eta aldi berean gizartean orden bat ezarriko litzake, *Garçonne* eredu horren amaiera ekarriko lukeena. Obrak beraz eredu hori argi eta argi irudikatuko du. Horren atzean beraz berriro ere sexu ezberdintasuna

ikusiko dugu, bi sexuen arteko ezberdintasunak argi eta garbi utziz, baina bi paperak leunduz.

### **3.1 Amatasuna**

Erreforma horien artean gizonezko hori modu leun bateagoan adieraztea giltzetako bat izan zen gizarte horren orekan. Baina, behin eredu hori landuta, emakume modernoaren eredu hori ere nolabait aldatu beharra zegoen. Horretarako historian zehar emakumeari atxiki zaion faktore batek berriz ere indarra hartu zuen: ama izatearen papera. Ezinezkoa zen, aurretik aipatu dugun moduan besterik gabe emakumea aurreko egoerara berriz ere itzularaztea, eta erreformatzaile hauek horretaz kontziente ziren Marañoen medikua barne (Aresti, 2001: 165). Helburua azken finean zen emakume horiei nolabaiteko irekiera ematea, aurreko egoerara itzul ez zitezen, baina aldi berean bi sexuen arteko muga horiek zeharkatu gabe (Aresti, 2001: 165). Lan hori noski zaila izan zen, ez baitzen erraza izan emakume horien nolabaiteko konformismoa lortzea, eta aldi berean erreformatzaile horiek ere ez zeuden prest gehiegi emateko ere. Leuntasun horren bila ari ziren bitartean, argumentu erabiliena, eta Marañoen hitzetan birritan errepikatua izan zena, “emakume izatea” aldarrikatzen zuten. Emakume izatearen hitz horrek, edo beste era batean esanda, emakumearen natura jarraitzeak, amaren paperarekin izango du lotura (Aresti, 2001: 166). Noski, amatasun honek ez zuen urteetan zehar izan zen bezala izan berriro ere, ama bai, baina ez zen berriro ere hasieran aipatu dugun “angel del hogar” kontzeptu horrekin lotuko. Beraz proposatuko den emakume berri hori alde batetik urrun geldituko da gerra aurreko garaiko emakume triste eta etxekotu horretatik, baina urrun geldituko da baita ere sexualki emantzipatzen saiatu zen *Garçonne* eredutik ere (Aresti, 2001: 166).

Eurak kontziente izango dira gerra aurreko emakumea etxeko esklabo modukoa zela, eta gizarte oreka bilatzeko ez dela egokiena. Argi eta garbi ikusiko dugu adibide moduan Nerea Arestik bere lanean Jesus Consecoren hitzak aipatzen dizkigunean adieraziz emakumearen erdigune bat bilatu beharra zegoela (Aresti, 2001: 166). Garrantzitsua izango zen kasu honetan beraz emakumearen iritzia kontuan izatea eta erreforma horrek hein batean gizarte guztia oreka batean mantenduko duen erdibide bat sortzea. Erdi bide horren giltzarri nagusia amatasunaren papera izan zen. Esan dugun bezala, amatasuna

emakumearen naturarekin lotzen zen, eta beraz oso elementu garrantzitsu bat izango litzake. Emantzipazio sexual horrek eta orokorrean emakume moderno horrek, amatasun hori kolokan jartzen zuen, eta oreka haustura garrantzitsua suposatzen zuen, beraz ez da harritzekoa erreforma honen puntu esanguratsuen amatasun horren aldarrikapena izatea. Baina noski erdigune horri amatasun paper hori atxikita, zaila izango da lan mundua eta amaren papera orekatzea, eta horren inguruan hainbat eztabaida sortuko dira (Cott, 1993: 116).

Amatasun berri hori eta lan mundua aurrera eramateko beraz, hobekuntza batzuk egiteko beharra zegoen emakumearen egoeraren aurrean. Hobekuntza horiek aipatzen ditugunean ezinbestekoa da Marañoñ berriz ere aipatzea, batik bat Espainiaren kasuan bera izan zelako erreforma horien aitzindaria (Castejon, 2013: 5). Hobekuntza horien artean helburua izango amatasun osasuntsu eta on bat izatea, eta amek ere hori bultzatzea. Horretarako hezkuntza sexual bat proposatu zuen, baita dibortzioa eta emakumeen osasunaren inguruko kontzientzia bultzatzea ere. Azken finean proposatu nahi zen emakumearen egoera eta kondizioak hobetoak eta errazagoak izatea amatasun bat garatzea erraza izan zedin. Hezkuntza sexual horretaz hitz egiten dugunean, sexu eta amatasunaren inguruko informazioaz ari gara, eta hori ondo adieraziko da Dora Russellen liburuan honakoa esaten duenean sexu hezkuntzaren inguruan: “Del mismo modo, a las niñas deberían explicarles los cambios físicos de la pubertad, el matrimonio y la maternidad, como se desarrolla el feto, qué comida y cuidados necesita la madre, y más adelante, él bebe” (Russell, 2005: 79). Horretaz gain, aipatzen ari garen bezala, amatasun berri honek ez zuen helburu emakumea etxearen eta ezkontzaren esklabo bihurtzea, ez ekonomikoki ez moralki ere. Beraz, amatasun berri hau garatzeko bide berriak irekitzen ziren, zeinak emakumeak kultura eta hezkuntza jasoko duten, lan munduan ere sartu ahal izateko (Castejon, 2013: 5). Testuinguru honetan berriz ere Virginia Woolf aipatzea garrantzitsua da, zeina aurretik aipatu dugun emakumeen askatasun ekonomiko hori aldarrikatzen duen behin eta berriz bere lanean. Azken finean ezin dugu ahaztu emakume baten askatasuna emateko, dependentzia ekonomiko hori deuseztatzea ezinbestekoa eta oinarrizkoa izango dela.

Beraz ikusiko dugun bezala eredu guztiz berri bat izango da. Baina noski amatasuna eta lan mundu hori batzea posiblea egingo lukeen elementuak beharko dira gizartean, momentu hartara arte pisu guztia amarengan erorita, zaila izango delako bi munduak bat egitea. Argi egongo da emakumezkoen lan mundua ezingo dela gizonezkoen lan munduaren antzeko zerbaitekin alderatu, beraz horretarako Marañonek biologian ikusiko du soluzioa (Castejon, 2013: 5). Ezin dugu ahaztu, nahiz eta Marañonen helburua ordena sortzea edo ekartzea zen, bere ustetan emakumea ama eta familia paper horretara atxikita zegoela, nahiz eta lan munduko eskubideak onartzen zituen (Aresti, 2001: 164). Ideia horri lotuta beraz, nahiz eta aipatu dugun emakumea lana egitera bultzatzeko joera hauek zabaltzen hasi zirela, erreforma hauek bere muga zuten. Muga horien artean ikusiko dugu aldarrikatzen zela emakumeak haurdunaldia igarotzen zuen momentuan, eta ama izateko adina pasatzen ari zen bitartean, ama izatearen paper horri zuzendu beharko zuela bere bizitza huts-hutsean, beste inolako oztoporik ezarri gabe (Castejon, 2013: 5). Hau guztia esanda beraz ondorioztatu dezakegu Marañonen ustetan soilik emakumeak bere umeak hazita edo euren egoera ezberdina zenean zuzendu ahal izango zuela bere bizitza lan mundura.

Ipar Amerikan etxeko mundua eta haurren hazkuntza, lan munduarekin behar bezala aurrera atera ahal izateko etxeko mundua ere erraztu egin beharra zegoen, batez ere emakumeei etxean orduan kentzeko. Horretarako beraz etxean hobekuntza nabariak zabaldu ziren: gasezko sukaldia, plantxa elektrikoak... Honek eraginkortasuna era nabari batean eragin zuten eta aldi berean denbora aurrezten zieten etxeko lanetara zuzentzen ziren emakumeei, horrela, teorikoki lan munduan ere zentratzeko (Cott, 1993: 120). Baina egoera ezberdina izango da Europa aldean, batez ere Frantzia eta Britainia Handian. Urte hauetan udaletxeak eraikitako etxeak ugarituko dira, langile etxeak izango direnak, eta bertako kondizioak ez dira oso onak izango, beraz ez dituzte ipamerikarrek izango dituzten abantaila hauek izango.

Erreforma hauek bestalde bultzatu nahi zena izan zen amatasun arduratsu bat izatea. Momentu hartara arte ugalketa bultzatzen zen guztiaren gainetik, baina aldaketa hauekin eta erreforma berri hauei esker, hobeto ikusten hazia zen ume gutxiago izatea baina hauek egoera onean bizitzea, ume asko izan eta miserian bizi baino (Aresti, 2001: 178). Eredu

guzti honen zabalkuntzak berebiziko garrantzia izan zuen publizitateak, eragin handia zuelako hamarkada berri honetan (Cott, 1993: 120).

### 3.2 Amatasunari lotutako lanbideak

Jarraian azalduko dugun moduan, lan mundua geroz eta garrantzitsuagoa bihurtu zen emakumeentzat. XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan ordea, zerbitzu domestikora zuzendutako lanek hartu zuten garrantzia emakumeengan batez ere.

**Tabla 1.** Mujeres matriculadas y su porcentaje sobre el total del alumnado. 1910-1935

Curso	N.º	%	Curso	N.º	%
1910-1911	33	0,17	1929-1930	1.744	5,2
1916-1917	177	0,56	1930-1931	2.246	6,3
1920-1921	440	2,0	1931-1932	2.026	6,0
1923-1924	898	3,5	1933-1934	2.124	6,9
1926-1927	1.611	4,6	1935-1936	2.588	8,8

*Fuente:* Flecha, 2006: 481.

#### 1. taula<sup>4</sup>

Garai hartan ohitura handia zegoen lan moduan soilik industria produkzio soldatapeko lanak kontsideratzeko, eta beraz arlo horretatik kanpo gelditzen ziren lanbideak ez zuten gizartean errekonozimendu berdina (Llona, 2002: 69). Hamarkadek aurrera egin ahala, batez ere hogeigarren hamarkadan hezkuntzak berebiziko gorakada jasango du orokorrean, eta baita emakumeengan ere. Bigarren hezkuntza eta goi mailako hezkuntzan emakumeen presentzia izugarri handitu zen. Unibertsitateko ikasketek ere nabarmenki egin zuten gora emakumeengan, eta baita orokorrean ere (Cott, 1993: 115). Presentzia honek eragin zuen emakumeen lan munduan emakumezkoen adina igotzea, nerabe asko eta asko hezkuntzan sartu zirelako, bigarren hezkuntza edo unibertsitateko ikasketetan.

<sup>4</sup> **1.Taula.** (GUIL, A., “Universitarias en España”, *Rev. hist.educ.latinoam* - Vol. 17, 24, 132rr: <http://www.scielo.org.co/pdf/rhel/v17n24/v17n24a07.pdf>). Bertan emakumeen presentziaren igoera argi eta garbi ikusiko da unibertsitate munduan. Ikusten da nola hasierako urteetan emakumeen zenbakia oso urria izango den, hogeigarren hamarkada arte zenbaki hori ez baita 500 emakumeetatik igoko, baina aldiz hamarkada honen erdialdetik aurrera gorakada nabaria izango dugu, eta jada 30. Hamarkadan 2.200 emakume inguru izango ditugu, hots, aurreko hamarkadako laukoitza.

Unibertsitateko ikasketetan hala ere ikusiko dugu nola oraindik ere ikasketak aukeratzeko orduan, karrera zehatzak izango direla emakumeak gehien aukeratuak dituztenak, lanarekin ere horrela gertatzen delarik, ondoren aipatu dugun moduan. Horrekin batera, ezkontza adina ere atzeratzen joan zen, emakumeen “betebeharren” artean etxea aurrera eramatea baino zerbait gehiago egongo zelako (Cott, 1993: 116).

**Tabla 2.** Porcentajes sobre total de alumnas universitarias, por Facultades y Cursos Académicos

Curso	Medicina	Farmacia	Filosofía y Letras	Ciencias	Derecho	Total
1872-1910	48,0	24,7	20,5	4,1	2,7	100%
1914-1915	22,2	17,8	30,0	27,8	2,2	100%
1916-1917	19,2	16,4	26,6	37,2	0,6	100%
1918-1919	18,7	21,3	25,8	32,9	1,3	100%
1920-1921	14,6	26,2	23,2	34,2	1,8	100%
1923-1924	13,3	32,2	24,2	28,3	2,0	100%
1926-1927	8,1	27,7	25,6	36,4	2,2	100%
1928-1929	11,7	49,1	22,4	11,7	5,1	100%
1930-1931	9,7	43,2	25,1	14,9	7,1	100%
1932-1933	8,9	25,1	35,9	17,1	13,0	100%

*Fuente: Anuarios Estadísticos de España. Años correspondientes. Elaboración propia.*

## 2. taula<sup>5</sup>

Hala ere oraindik ere lan mundu honek mugak izango ditu, muga oso handiak. Emakumeari lan zehatz batzuk atxiki zitzaizkion eta ez da egongo gizonaren maila berdinean aspektu honetan. Nahiz eta itxurako aldaketak ematen hasi, lan domestikoez oraindik izugarritzko garrantzia izango dute emakumeen bizitzan, eta arestian aipatutako aurrerapenak emateaz gain, ideologia eta mentalitate aldaketek gutxi egin zuten aurrera. Hala ere, aipatu beharra dago etxetik kanpoko lanbideek protagonismoa irabazi zutela baina ikusiko dugu nola lan zehatz batzuk egongo diren sexu honi zuzenduta. Hala nola irakaskuntza mundua batez ere emakumeari zuzendu zitzaion urte hauetan (Llona, 2002: 74). Ikusiko dugu taula baten bidez nola hogeita hamargarren hamarkadan zehar, urteak igaro ahala, unibertsitateko irakasle emakumeen kopurua handitzen joango dela, nahiz eta oraindik ere kopurua gizonetik oso murriztuta egongo den.

<sup>5</sup> **2. taula.** (GUIL, A., “Universitarias en España”, *Rev. hist.educ.latinoam* - Vol. 17, 24, 133orr: <http://www.scielo.org.co/pdf/rhel/v17n24/v17n24a07.pdf>). Taula honetan emakumeen unibertsitateko presentzia ikusiko da, baina fakultatearen arabera banaturik. Ikusiko dugu garai honetan oraindik ere mugak egongo direla, eta karrera zehatz batzuek izango dutela presentzia nabariagoa, emakumeei zuzenduta egongo baitira.

**Tabla 4.** Profesorado universitario

Curso	Mujeres	Hombres	Total	% Mujeres
1928-1929	7	1.121	1.128	0,6%
1929-1930	11	1.167	1.178	0,9%
1930-1931	19	1.233	1.252	1,5%
1931-1932	21	1.158	1.179	1,7%
1932-1933	64	2.071	2.135	3,0%

*Fuente:* Flecha, 2013

### 3. taula<sup>6</sup>

Urte hauetan ere sortu berri zen lanbide bat aipatu behar dugu, zuzen-zuzenean emakumeei zuzenduta egongo dena: erizaintza. (Cott, 1993: 131). Erizaintzak karrera moduan bere hasiera XIX. mendearen erdialdean izango du, baina benetako zabalkuntza XX. mendeko lehen hamarkadetan izango du (Llona, 2002: 92). Lanpostu honek gainera etxearekin lotura izaten jarraituko du, etxean eginiko zerbitzuak izango delako.



### 5.irudia<sup>7</sup>

<sup>6</sup> **3.taula.** (GUIL, A., “Universitarias en España”, *Rev. hist.educ.latinoam* - Vol. 17, 24, 136orr: <http://www.scielo.org.co/pdf/rhel/v17n24/v17n24a07.pdf>). Azkeneko taula honetan unibertsitateetan aurkitzen diren irakasle kopurua ikusten dugu. Ikusiko dugu emakumeen kopuruak gizonekin konparatuta, maila honetan oso baxuak izango direla eta hamarkadak aurrera joan hala ere baxuak izaten jarraituko dutela. Emakume irakasleek presentzia handiagoa izango dute Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

<sup>7</sup> **5.irudia.** (RUIZ, R., Archivo de Adolfo Molina: <http://www.cabraenelrecuerdo.com/sanidad-ampliadas.php>). Emakume erizainak, zeinak XX. mendeko lehen hamarkadetan garrantzia hartzen joan ziren, emakumeei atxiki zitzaizkien lan horietan.



Lan honek etengabe libre egotea eskatzen zuen, lan honen zerbitzura bizitzera ekartzen zuena. Beraz, emakumeentzako lana izango den arren, etxeko lana izaten jarraituko du. Horretaz gain ezin dugu administrazio eta batez ere horren barruan idazkaritza mundua ahaztu. Horrekin lotuta aipatzekoa da Espainiako kasuan Estatuto de Funcionarios delakoaren sorrera, zeinak emakumeen sarrera baimentzen zuen Administrazio munduan, laguntzaile bezala (Llona, 2002: 110). Urte hauetan emakumea mekanografia eta administrazioarekin munduarekin lotzen hasi zen. Lan honek ordea berezitasun bat izango du. Orokorrean aurretik aipatu ditugun lanbideak amatasun paper horrekin lotura izaten jarraituko dute, baina lanpostu hau gehiago lotzen hasi zen lan osoan zehar aipatutako emakume emantzipatu horrekin, hots, bere kabuz bizitzeko askatasuna zuen emakumea. Beraz idazteko makina askatasunaren ikur bilakatu zen gutxika, zeinak amatasun eredu horrekin ez luke aurreko lanpostuek bezainbesteko lotura erakutsiko.

Esan dezakegu nahiz eta orokorrean bazirudien emakumeen inguruan gauzak aldatzen ari zirela, pentsamendua ez zen aldatzen eta emakumeak gizonaren maila lortze hori oso urrun zegoen oraindik ere. Argi ikusiko dugu Nancy Cott-ek bere lanean aipatzen duen moduan, Housewife aldizkarian agertu ziren publikazio batzuk zeinak honakoa esaten zuten: “Feliz y afortunado el hombre cuya esposa está orgullosa de su hogar [...] y a la que...] le gusta hacer las cosas bien para que él se sienta orgulloso de ella y de sus hijos” (Cott, 1993: 131). Zita hau adibide ezin hobea da ikusteko nola, erreforma guztien atzean, eta emakumea lan mundura sartze horrek, ez zuela suposatu gizartean erabateko aurrerakuntza bat edo pentsamenduaren aldakuntza bat.

Hala ere urte horietan zehar emakumeak lanpostuak betetzen zituzten eta gutxika bazen ere postu horietan zeuden. Esaterako Frantzia emakumeek populazio aktiboaren %37.9 suposatzen zuten, eta urte horietarako kopuru handia zen. Urte horietan beraz nahiz eta familia diskurtsoak zabaldu, eta indar handia izan, emakume askok eta askok euren aspirazioa jarraitzea erabaki zuten, lanpostu duin bat izan ahal izateko.

#### 4. Ondorioak

Hogeigarren hamarkada zoriontsuak beraz gaur egun aipatzen den hazkunde ekonomiko eta urte zoriontsu horiek ekartzeaz gain, emakumeengan ere bultzada handi eta garrantzitsu bat ekarri zuen. Bultzada hau, aurreko emakumeen borrokek eta Lehen Mundu Gerrak ekarri zuten emakumeari lan munduan sarrera garrantzitsu bat emanik. Gutxika emakume hau emantzipatzen eta liberalizatzen joan zen heinean, gizartean indar handiagoa lortzen joan zen. Urteak pasa ahal, esan dugun moduan emakume honek *Garçonne* terminazioa hartuko du, zeinak itxura fisiko bat eta munduaren aurrean izaera propio bat definituko duen. Eredu hau lorpen ezberdinek emango dioten indarrarekin, oraindik ere entzunagoa egingo da eta sexu berdintasun bat lortzen saiatuko dira.

Egoera guzti honen aurrean ordea gizartearen erreakzio bat ikusiko dugu, zeinak beldurrak kondizionatuko dituen. Beldur honek aldaketa baten beharra ekarriko du emakume moderno horren aurka egiteko. Erreakzio horiek ordea jada ezingo dute emakumea, modernoa izan aurretik zegoen egoerara itzularazi, jada emakumeak balio zuela erakutsi ziolako gizarteari. Modu honetan beraz kutsu erreformista bat hasiko da zabaltzen bai Europan, eta bereziki lanean aipatu moduan Espainian Marañonekin. Erreforma hauek bai maskulinitatearen eredu berri bat eta baita feminitatearen eredu berri bat bilatuko du, bi ereduak nolabaiteko bitarteko bat bilatuz, gizartean ordena ezartzeko nahiarekin.

Zeintzuk izango dira honek ekarriko dituen ondorioak? Aipatu moduan, gizona arduratsuago bat ezarriko da, aurreko ereduarekin hautsi nahian, eta bestetik emakumeari dagokionez ere amatasun berri bat ezarriko da. Amatasun berri horrek, hein batean emakumea aurreko egoerara itzularazi nahi izango du, emakumea ama den moduan ulertzen badugu, baina bestetik nolabaiteko dependentzia ekonomiko horretatik ere askatu nahi izango da. Horretarako hainbat aldakuntza emango dira gizartean, baina lanean aztertu dugunarekin esan dezakegu, errealitatean ez zela mentalitate aldaketa bat eman eta errealitate faltsu bat sortu zela. Hots, emakumea lan munduan sartu nahi izango da, baina aipatu dugun moduan lan horiek ere bere muga izango dute, emakumeari zuzendutako lan zehatzak izango baitira. Horretaz gain, erreforma horiek *Garçonne* emakumeak eskatzen

zituen aldarrikapen horiek murriztea zuten helburu, beraz hartutako erabakiak nolabaiteko makillajea edo maskara suposatzen zuten, emakume hori modu batean konformatzeko.

Zer lortu zen erreforma horien bidez? Urte horietan gizartean sortu ziren desordenak eta ezinegonak nolabait geldiaraztea lortu zen. Emakume modernoak aldarrikatzen zuen askatasun sexual hori bertan behera gelditu zen, berriz ere familia eredu berri bat osatuz. Printzipioz bazirudien gizarte berri baten aurrean zeudela, sexuen arteko berdintasunari dagokionez, baina errealitate faltsu hori aipatzen dugunean esan nahi dena da, errealitatean ideiak eta emakumearenganako ideiak berdin jarraitzen zutela. Urteak pasa hala, *Garçonne*, ile motza, liberalizazio sexuala... atzean utzi ziren eta ahaztu egin ziren. Lortu zena izan zen gerra aurreko egoera betera itzultzera, baina aurrerapauso gutxi batzuekin. Ez legoke ondo esatea aurreko egoera hori berriz ere itzuli zenik, emakumearen aurreko egoera latza zelako. Urte hauetan beraz, aurreko urteak leuntzea lortu zen, zentzu guztietan.

Emakumeari dagokionez, “angel del hogar” edo etxearen esklabo izatetik, *Garçonne* eredura igaro zen, zeinak beste muturra irudikatzen zuen. Hogeigarren hamarkada igaro ondoren ordea esan daiteke erdi bide bat lortu zela, bi aldeetatik aspektuak hartuko dituen, baina funtsean hurbilago geldituko da lehenengo eredutik bigarrenetik baino. Aldaketa honen muina noski, amatasunaren izatearen identitatea goraiatzea izango da. Denborarekin ikusiko dugu erreforma horiek funtsean konformismo modukoak izango direla, garaiko aldarrikapenak leuntzen saiatzeko. Ondorengo urteetan gainera, dakigunez Europan erregimen faxistek hartuko dute protagonismoa, eta urte hauek modu batean edo bestean lehenengo bi hamarkadetan emandako pausuak atzeratu egingo dira. Gerra arteko egoera zaila izango da emakumeentzat beraz, eta nahiz eta urte hauetan pentsamendua eta indarrak oraindik ere garatzen jarraituko duten, hamarkada batzuk itxaron beharko ditugu, XX. mendeko hasiera honetan eman ziren aldarrikapen eta teoria asko garatu ahal izateko, eta loratu ahal izateko.

## 5. Bibliografía

ARESTI, N., (2001): *Médicos, donjuanes y mujeres modernas: los ideales de feminidad y masculinidad en el primer tercio siglo XX*, Universidad del País Vasco, Leioa.

ARESTI, N., (2007): “La mujer moderna, el tercer sexo y la bohemia en los años veinte”, *Dossier Feministes 10*, 173-185orr.

ARESTI, N., (2012) “Masculinidad y nación en la España de 1920 y 1930”, *Melanges de la casa de Velázquez*, 55-72orr.

CASTEJÓN BOLEA, R. (2013). “Marañón y la identidad sexual: biología, sexualidad y género en la España de la década de 1920”. *Arbor Vol.* 189-759 orr.

COTT, N., (1993): “Mujer moderna, estilo norteamericano: los años veinte”, DUBY, G., I PERROT, M., (zuz.): *Historia de las mujeres. El siglo XX*, Madril, Taurus.

CRUZ-CAMARA, N., (2015): *La mujer moderna en los escritos de Federica Montseny*, Estatu Batuak, Támesis.

DE BURGOS, C., *La mujer moderna y sus derechos*, Madril, Biblioteca Nueva.

FERNANDEZ DE ROTA, A., (2010): “Desplazamientos de la antropología y el feminismo. Ejercicios del poder constituyente.”, *Revista de Antropología experimental 10*, Universidad de Jaén, 55-91orr.

LLONA, M., (2002): *Entre señorita y Garçonne. Historia oral de las mujeres bilbaínas de clase media. 1919-1939*, Malaga, Universidad de Málaga.

LLOYD, T., (1970): *Las sufragistas, valoración social de la mujer*, Bartzelona, Nauta.

NASH, M., ALVAREZ, A.I., (2002): *Seneca Falls: Un siglo y medio del Movimiento Internacional de Mujeres y la lucha por el sufragio femenino en España*, Asturias, Consejería de Educación y Cultura.

NASH, M., (2004): *Mujeres en el mundo: historia, retos y movimientos*, Madril, Alianza.

SOHN, A.M., (1993): “Los roles sexuales en Francia y en Inglaterra: una transición suave”, DUBY, G., I PERROT, M., (zuz.): *Historia de las mujeres. El siglo XX*, Madril, Taurus.

STARR, T., (1993): *La “inferioridad natural” de la mujer*, Bartzelona, Alcor.

THÉBAUD, F., (1993): “La Primera Guerra Mundial: ¿la era de la mujer o el triunfo de la diferencia sexual?”, DUBY, G., I PERROT, M., (zuz.): *Historia de las mujeres. El siglo XX*, Madril, Taurus.

## **ITURRIAK**

RUSSEL, D., (2005): *Hipatia: mujer y conocimiento*, (Itzul). VIÑUELA. E., Oviedo, KRK.

WOLF, V., (2008): *Una habitación propia*, Bartzelona, Seix Barral.